

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1992ko Maiatzak 15, 150. zenbakia

ARKOk argitaratua Udalaren laguntzarekin



Osasun Pastoraltza

Gaixoen bisitariak

Joseba



LORAMENDI

BIROLAK

Maiatzaren 1a plaza Tfnoa: 79 97 24 ARRASATE

**JANTZI ZAITEZ
ABENTURARAKO!!
Oinetakoak,
Bainujantziak, Kanping-a**



San Viator Ikastola

**50 urtez pertsona osoa eta
pertsona bakoitza hezitzen**




2. Mailako Hezkuntza Derrigorrezkoa (12-16)

- * D, B eta A Ereduak
- * Teknologia (Informatikarekin)
- * Laguntza gela
- * Orientazio eskolarra edota lanerakoa
- * Ikaslearen jarraipen pertsonalizatua

Goi Batxilergoak (16-18)

- * Ereduak: D eta A
- * Batxilergo motak:
 - +Natur Zientziak
 - +Giza Zientziak:
 - Letretako adarra
 - Adar administratiboa
- * Ordu-tegi etengabea (8:00/14:30)
- * Tutoretzak arlo bakoitzean
- * Orientazio prozesu sakona



- * **Hezibideko partaidea**
- * **Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko kidea**

Bizigiro Osasuna Moduloa

Batxilergoa bukatzean beste aukera bat. Praktika-saioak entpresa eta laborategietan

Matrikula epea zabalik

Arrasate Pasealekua 10
Telefona: 790411

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

ARKO. Arrasate Komunikabideak-AED
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Arantzazu Loidi

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon.

Maketazioa:

Goio Arana

Publizitatea:

Kepa Oliden

Tfnoa: 77 08 15

Kontabilitatea:

Agurtzane Gaintzarain

Erredakzio-kontseilua:

Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero eta Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Blanka Jauregi, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Hankamotz, Atalaitaikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Andoni Urzelai, Koldo Rodriguez, Jon Andueza, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertsoeskola.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. Ozaeta

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 6.100 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

... eta bapo

Horrela da, bai. Azken "koilarakada" dut gaurko hau. Amaitu da epea; amaitu da nire buruari ezarri nion asteroko ariketa. Eta amaitu da, nola ez!, sail honen zergatikakoa.

Komentzimendu haundi gabe hasi nuenak jarraipena izan du 150 astetan zehar. 150 emanaldi baino gehiago... izan ere artikulu batzu betiko galdu bait ziren erredakzioko paper eta tramankuluen artean. Lehendabiziko zenbaki hartarako lankidetzak eskaini nuenean, Arrasate Press-ekin lotu behar ninduen harremana hain luze izango zela adierazi balidate ez nukeen sinetsiko. Baina horrela gertatu da eta neu naiz gehien harritu dena.

Eta hasiera duen guztiak bukaera ere baduelakoan, agur esan behar diot nire lankidetzari. Ez da produktibitatearen aldeko erronka bat izan; ezta iraupen luzeko lasterketa behartua ere. Gustora ekin nion erronkari eta gustora ipintzen diot azken puntua; eta ez dut inolako balantzerik egin nahi, izan ere guarismoa makro zein mikrotako balantzeek egilearen borondatea azaltzen bait dute eta, beraz, ez dagokit neri ezelako helbururik bete ote den zehaztea.

Plataforma ederra eskaini zitzaidan, nire astiematerik minenetakoari aukera emateko. Eta aprobetxatu egin

dut. Horixe izan da dena. Beraz, zordun geratzen naiz Arrasate Press-ekin. Parentesi artean, diodan, ez dezatela pentsa kolaboratzaileen zerrendatik nire izena desagertzeaz zorra kitatutzat ematen dudarik. Oraindik asko falta zait.

Gure astekaria esku onetan dago. Eta aurrean duen ibilbidea guztiz laua marraztu ezin daitekeen arren, ziur nago zailtasun guztiei tinkotasunez egingo zaiela aurre. Arrasate Komunikabideak -ARKO- deritzan erakundeak egokiro diseinatu du, gure herri euskaldunak behar (eta merezi duen) estrategia. Urratsez urrats. Kolpez kolpe.

Hobekuntzako prozesuak aurrera jarraitzen du, Arrasatek eskaini ditzakeen gestio-efortzu guztiak bideratu eta sinkronizatzeke. Astekariaren arduradunei ez zaie arrotz, gauden lehiaketa-lasterketa gogorrean egonik, aurrerakuntza puntualen gaitetik igaro behar dela, hobekuntza jarraia uhinean sartzeko.

Ibiliaz da bidea egiten. Erantzunkizuna guztiona da. Neri, gaurkoan, lekukoa eskuz aldatzea suertatu zait eta nire liburu txikiaren azken orrialdea pasatzen dut. Berriak aurkituko ditudalakoan, beti arte.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

Memesa
79 42 22



Zatoz gure
gazte moda
ezagutzera

Italora Lizentziatua, 5
Tfnoa: 77 00 81
ARRASATE



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta larruzko artikuluak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84



DANKAIR'T

Estetika eta ileapaintzaile
Eskola

M.E.C.-ek homologatua

Bittor Sarasketa, 7-3.
Tfnoak: 12 15 18 / 12 71 52 EIBAR

**I
R
T
A
B
E
R
N
A**

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 71 80

Injenieritza tekniko egoera larrian

Inguruko toki guztietara bezala ikasketen planifikaziotara ere errekonbertsio edo erreformak egiteko garaia heldu zaigu. Erreforma hau ikasketa teknikoak egiten dituztenentzat oso nabaria izango da, ikasketak beraiek nola geldituko direnagatik ez bakarrik, etorkizunean lan inguru batetara hurbiltzen den unean ere nabarituko bait du.

Erreforma honen bitartez ikasketek jasango duten aldaketarik garrantzitsuenak iraupenarena da guretzat, honen arabera planifikatzen eta sailkatzen bait dira ikasi beharreko gaiak. Lan egiteko momentuan ere langilea kotizatze eta konpetentzi teorikoa ikusteko hau edukitzen da kontutan.

Erreforma honek, gaur eguneko ikasketa tekniko, injineritza tekniko gure kasuan, murriztu egin nahi du, murrizketa hau urte oso bat baino gehiagokoa delarik. Honen ondorioz injineritza teknikoan banatuko diren ikasgaiak murriztu egiten dira eta

injinari tekniko baten prestaketa ere bai. Horrela, lana egiteko momentuan gure kotizazioa jeitsi egiten da eta ezingo dugu gaur egun hartu ditzakegun ardurak hartu. Hemen daukagu jendea langabeziara bidaltzeko beste iturri bat.

Gainera, 93ko Europaren muga zabalketa horrekin, Europatik etorriko diren injinariak aukera ederra izango dute hemengo jaun eta jabe egiteko, erreforma xeble honekin ez bait dugu beraientzako inolako konpetentziarik. Europatik datozen injinariak oso ongi prestaturik etorriko dira eta horren aurrean hemengo injinariaren prestakuntza jeitsi egiten digute. Ba al du horrek inolako logikarik?


Guzti hau dela eta, inguruko jende guztiari honen berri ematea erabaki dugu, horrela erreforma honen aurka protesta ekitaldiak egiten baditugu, uler dezazuen hauek ez direla denbora pasatzeko tontokeriak, milaka ikasle-
ren etorkizunaren segurtasun eskakizuna baizik.

ENEKO AKARREGI

E.P.KO INJINERUTZA-IKASLEEN ORDEZKARIA

Agurrik ez, Josemari

150 astetan fin eta puntual asko iritsi zaigu erredakziora Josemari Velez de Mendizabalen *Luma Zorrotza*. Hiru urteko lanaren ondoren, ondo merezitako deskantsua hartu behar digu. Mila esker, Josemari, eta nahi duzun arte.



ARAMAIO okindegia

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46



Kontzeizño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

EXPOra joateko asmorik bai?



Maria Luisa Herrera
(Etxekoandrea)

Ez, ez zait heltzen dirua. Gustora joango nintzateke, baina ez dut uste joango naizenik.



Josema Balbas
(Mantenimendu elektrikoa)

Ez, ez dut asmorik. Ez da Sevillara joateko sasoirik onena. Datorren urtean ere han egongo da.



Inaxio Berasarte
(Izozki banatzailea)

Ez, ezin dut. Lana egitea tokatuko zait eta ez dut astirik izango.



Miren Etxabe
(Ford Mugarriko langilea)

Egon naiz, nahiko garestia da baina merezi du joatea. Gauza asko dago ikusteko.



Gaizka Mena
(Ikaslea)

Ez, ez dut joateko asmorik. Beste plan batzuk ditut udarako.



Maria Angeles Urzelai
(Fagorreko langilea)

Bai, badut joateko asmoa, uste dut interesgarri izan daitekela.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako anbulantziak	45 87 44
-------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK


Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEAREN ZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

MONTEORONGO LIBURUTEGIA

Monterron	77 01 05
-----------------	----------



15

OSTIRALA

- Zinea: Alai: "El principe de las mareas" (5-7.30-10).
- Musakolako jaiak: Jubilatuentzat mus, briska eta bolo txapelketak eta gauean dantzaldia, Minxoriak taldearekin.
- Mendiko Astea: Diapositiba emanaldia: "Makalu: Iñurragi anaiak, iaz lortutako gailurra", Monterronen arratsaldeko 7etan.
- Indar lehiaketa: Beti-Ona gimnasioan, arratsaldeko 7.30etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Amezua, Santamaina. Gauez: Guallar, Bergara.

16

LARUNBATA

- Zinea: Alai: "El principe de las mareas" (5-7.30-10)
- Musakolako jaiak: Goizean, mountain-bike ibilaldia, pilota partiduak eta haurren

Kirol Agenda

Futbola

- Igandean, Mondra eta Durangoren arteko partidua, Atxabalpen arratsaldeko 5etan.

Eskubaloia

- Larunbatean, CSKA Moskua - Mepamsa partidua, Iturripen arratsaldeko 6.30etan.
- Igandean, Arrasate Kirolak - CAF, eguerdiko 12etan.

18

ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "El principe de las mareas" (7-9.30)
- San Frantzisko Xabier Ikastolaren 25. urteurreneko erakusketaren lehen eguna, Monterronen.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerias.

19

ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "El principe de las mareas" (7-9.30)
- Sukaldaritza ikastaroa, Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan.
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

21

OSTEGUNA

- Hitzaldia: "Garapena, azpirapena eta ingurugiroa", EKIk antolatuta. Udaletxean arratsaldeko 7etan.

Pilota

- Larunbatean, Herrien arteko Txapelketa, Musakolan Arrasate-Orio, goizeko 10.30etan.
- Igandean, Herrien arteko Txapelketa, Iturripen Arrasate - Oñati, goizeko 11etan.

Hitzaldiak

• Garapena

Datorren ostegunean, hilak 21, "Garapena, azpigarapena eta ingurugiroa" izeneko hitzaldia izango da Udaletxean. Hizlaria Eduardo Malabon, ubertsitateko irakaslea izango da. EKIk antolaturik arratsaldeko 7etan.

Lehiaketak

• Kartel lehiaketa

Aretxabaletako kultura batzordeak, Andra Mari jaien kartel lehiaketa antolatu du. Teknika librekoa izanik, herriko edozeinek har dezake parte. 50x70 zentrimetroko neurria izan beharko du eta ekainaren 30a baino lehen entregatu beharko dira kultur etxean. Irabazleak 30.000 pezeta jasoko ditu.

• Marrazki lehiaketa

Eskoriatzako Udaleko Kultur Batzordeak, marrazki lehiaketa antolatu du haur eta gaztetxoentzat. "Bizia bizi, drogak galerazi" izango da lema. Teknika librekoa izango da eta guztira lau sari banatuko dira: 10tik 12 urtera bitartekoentzat bi eta 13tik 16ra bitartekoentzat beste bi.

• Kartel lehiaketa

Eskoriatzako San Pedro jaietarako kartel lehiaketa antolatu da. Edozeinek har dezake parte eta teknika librekoa izango da, neurriak 50x65 izango dira eta irabazleak 20.000 pezeta irabaziko du. Ekainaren 10a baino lehen entregatu beharko dira.

Jaiak

• Antzerkia Eskoriatzan

Datorren 16n Porpol taldea-



Musakolako jaiak

Kirolak, musika, txapelketak... hiru egunetan

Nahiz eta pasa den astebukaeran Musakolako jaiak siera eman, datorren 15, 16 eta 17a izango dira egun fuerteenak. Ostiralean, San Isidro eguna ospatuko da eta kanpai eta txapliaren jaurtiketarekin hasiko dira jaiak. Arratsaldeko 4etan, jubilatuen mus eta briska txapelketako finalak eta bolo txapelketa jokatu dira. Larunbatean, kuadrilen eguna ospatuko da eta goizeko 9etan 3. mountainbike irteera egingo da. 10.30etan herrikoen arteko pilota txapelketa. Arratsaldean, 5.30etan San Isidro soka-tira txapelketa izango da. Igandea izango da azken eguna; goizeko diana eta beste ekitaldi batzuen ostean, arratsaldeko 5.30etan herri kirolen saioa izango da: harrijasotzaileak, aizkora jokua, ahari jokua eta haurren jolasak. Ondoren, 7.30etan DDDP eta E.H. Sukarra taldeen rock jaialdia izango da.

Hauetaz gain, gaueko 10.30etan jaialdiak izango dira, Minxoriak ostiralean eta Lisker larunbatean.

ren antzerkilana ikusteko aukera izango dugu Eskoriatzan. Herriko kiroldegian, gaueko 9.30etan, "Quizas" lana antzerkuko dute. 23n berriz, Xirrika taldearen "Lastozko ilusioak" obra aurkeztuko dute. Herriko zine-man iluntzeko 8.30etan. Eta antzerki saio hauei bukaera emateko, 30ean, Picor taldearen "Naftalina" lana ikusiko dugu, Herriko plazan eta arratsaldeko 8.30etan.

• Ojala-Zelaiko jaiak

Aretxabaletako Ojala-Zelaiko jaiak igandean izango dira. Goizeko 10etan hasiko dira ekintzak txistularien kalejirare-

kin, 10.30etan Mountain Bike irteera izango da. Ordubatean bertsolariak izango dira eta 5etan soka-tira txapelketa ospatuko da eta 6etan patata tortilla txapelketa. Honetan bi kategorietan banatuko dira sariak: 16 urte arte eta 16tik gorakoentzat. Ondoren Salsamaltza taldearekin dantzaldia izango da.

Deialdiak

• Udalekuak

AEDk uztaileko antolatu dituen udalekuan parte hartu

nahi dutenek, zabalik dute ize-na emateko epea. OHoko 1. mailatik 8. mailararte haur-errentzat izango da eta bitxandetan egingo: lehena uztailearen 6tik 17ra eta bigarrena 20tik 30era. Izenemateak ikastetxetan edo AED elkarteetan 4tik 22ra egin daitezke. Prezioa 2.000 pezetakoa izango da.

Ikastaroak

• Mimika

Maiatzaren 9 eta 16an, eta 10 eta 17an, mimika ikastaroa izango da Aretxabaletan. Lehen bi egunetan arratsaldeko 4etatik 8etara eta bigarren egunetan 11etatik 2etara izango dira klaseak. Peter Roberts izango da irakaslea eta gainera izena emateko gaztetxera edo kultura zentzura zuzendu zaitezke interesatuak.

• Sukaldaritza

Datorren asteartean, maiatzaren 19, sukaldaritza ikastaroa izango da Famili eta Gizarte Heziketarako Zentzuan. Izaskun Babilietto izango da ikastaro emailea eta besteen artean prestatuko diren plateren artean, buding-a, mousse-a, izozkia, babaroise eta entsaladak ditugu. Plazak mugatuak dira eta izena emateko bertara, zentzura, zuzendu zaitezke, edo bestela telefono honetara deitu: 79 04 59.

Txapelketa

• Billarra

Datorren larunbatean, hilak 23 arratsaldeko 4etan billar txapelketa izango da gaztetxean. Izena emateko 1.000 pezeta ordaindu beharko da hasera ordua baino lehen. Sariak 15.000, 10.000 eta 5.000 pezetakoak izango dira.

“.....
Euskal Herrian ez zen asentamendu ga-
rrantzitsurik izan, baina bai Baionara eta Europako
iparraldera zihoazenak edo merkataritzara zihoazenak.
Auzo judutar bakarrak arabako Judizmendikoa eta Gi-
puzkoan Segurakoa eta Mongragoekoa izan ziren”.

(Paloma Miranda historigileak Donostiako
Hitzaldi ziklo baten)

“.....
Nire ustez zuen herrian razionalki era
diskriminatzailean ezartzen da heriotz zigorra (...)
Zure herriaren (EEBBen) alderdi hori bada subjetoa
eta ez dut uste intsultatua sentitzeko arrazoirik duzu-
nik, asko jota ere lotsatuta sentitu behar zenuke. (...)
Penagarria da zurea bezalako aberri batek, beste arlo
batzutan denontzat eredu denak, hain etika gutxiko
jarrerak mantentzea eta bertako hiritarren giza-
eskubideenganako hain errespetu gutxi erakustea”.

(Iban Yarza arrasatearrak DVn Vincent Mooney-ri
erantzunez)

“.....
Fagor Arrasate kooperatiban badaude
omenaldi gabe geratu diren bazkideak, konkretuki
1976 eta 1990 bitartean jubilatuta zirenak. Guztira 40
izan dira, horietatik hiru hil eta 37 bizi garenok. Nere
ustez ez da zuzena egin dutena, batzuei omenaldia
eskeini eta beste batzuei ez. Jubilatuen taldean bi talde
egin dituzte, iaz jubilatuta zirenak eta aurrez erretiroa
hartu zutenak. Haserre eta saminduta, zera galdetzen
dut nik: Zergatik?”

(Sabino Arrietak TU-Lankide Aldizkarian)

**Kirol berriek zer era-
gin dute mendian?**

Krisialdi ekologikoa
dela eta, mendi, ibai, eta
beste motatako naturgu-
neekiko kezka zabaltzen
doa gizartean. Badirudi
gure gizarte hau menditar
bihurtzen hasi dela. Na-
baria da mendian egiten
diren kirol eta iharduerek sekulako jende gorakada eta
dibertsifikazioa jasan dutela azken urteetan.



Aukera ugari daukagu mendira joateko orduan: peda-
lei eman, ormak eskalatu, oinez ibili, arroilak zeharkatu,
eskiatu eta baita saiak bezala hegaz egin ere. Milaka
persona mugitzen gara mendietan, bakoitza bere gus-
toko kirolean. Ez al da zoragarria?

Ba, ez hainbeste. Horrenbeste jende mendian ager-
tzeak arazoak sdakartza Naturaren kontserbazioaren
ikuspegitik: pakean zeuden orma eta arroiletako fauna eta
landaretza urritu egiten dira; zelai eta basoetan, landare-
tza galdu eta erosio prozesuak hasten dira; zaborrak;
kirolen promozio, masifikazio eta errentabilitatearen
ondorioz, azpiegituren agerpena (aterpe, piata, taberna,
hotel, errepide); basoak bota eski pistak sortzeko...

Horrela, hasera baten erakarri gaituzten mendi bizi eta
lasaia itotzen eta urbanizatzen hasi gara.

Badaude ba kirolen boom-a kezkarri egiten duten
arrazoiak baina, baita optimistak izatekoak ere: askotan
gutxieneko planifikazio bat egin ondoren, kirol eta natu-
raren arteko oreka erraz lortzen da. Beste kasu gutxi batzu
zailagoak dira eta hauetan promozio interesatuak alde
batera utzi beharko dira. Baina, hasi gaitezen berehala!

IÑAKI IRIZAR,

MENDIA BIZIRIK-EKO PARTAIDEA.

Berango



**Sukalde-altzariak,
mahaiak eta
aulkiak**

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g, Gipuzkoa etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE

J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko
aurrekontuak

Olarte, 30 Tfnoa: 79 77 11. ARRASATE

**ARRASATE
PRESS**



77 05 65

Pando

**PINTURAK eta
PAPEREZTAPENAK**

Aragoi, 6-3. Esk.
ARRASATE Tfnoa: 77 00 39

Goi mailako Ostalaritza Eskola

OÑATI

Arrasateko Eskola Politeknikoaren babespeko eskola honek 1992-1993 ikasturterako izen emate epea maiatzaren 15ean zabalduko du:

Eskaintza.

• HEZKUNTZA EREDU BERRIA

- 1go I.E.E., zerbitzu arloko praktikekin.
- 2. mailako sukaldaritza lanbide modulua.
- 3. mailako harrera-lanbide modulua.

• PEDAGOGI AZPIEGITURA AURRERATUA

- Laborategiak eta ordenadore gela.
- Aplikazio hotela eta jatetxea.
- Sukalde pedagogikoa.

• ZERBITZU ABANTAILAK


- Instalakuntzak.
- Kokapena (Oñatin, erdian-inean).
- Garraioa eta jangela.
- Eskolaz kanpoko kultur ekintzak.

• IRAKASKUNTZA PERTSONALIZATUA

- Talde txikiak.

• IRAKASLEGO ESPEZIALIZATUA

- Ostalaritza arloko profesionalak.
- Hizkuntza ezberdinen irakaskuntza.
- Informatika.
- Dietetika.
- Teknologia.
- Osasuna.



**1992-1993 ikasturterako izen emate epea
maiatzaren 15etik 29ra izango da.**

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak bidalitako aurreinskripzio inpresok norberaren ikastetxean izango dira eta ikastetxean bertan izen emate eskaera Arrasateko Eskola Politeknikoari, eta ostalaritza edo harrera adarrean bereziki, egiten zaiola azpimarratu beharko da.

□ Gaur ostirala Plenoa

Gaur ostirala, arratsaldeko 7etatik aurrera Udal Plenoa burutuko da. Gai-zerrenda osatzen duten hamalau puntuen artean, HIES-aren aurkako Batzorde Hiritarrak gaixotasuna dutenei elkartasuna adierazteko eta AEDK Frantziako Tourrean euskararen erabilerari buruz aurkeztu dituzten mozioak aipa daitezke. Horretaz gain, martxoaren 6an Udalbatzak "Senideak"ek aurkeztutako mozioa onartzeko akordioaren aurka zinegotzi sozialistek ezarri duten errekurtsioa ere eztabaidatuko da.

□ Kutxak eta Udalak euskaraz sinadura

Udalak Kutxari kreditu eskaera egin zion eta joan den astean sinatu zuten akordioa, lehen Lagun-Aroekin egin zen bezala akordioa euskara hutsean egin eta sinatu da. Kutxak sinaduraren bidez Udalarari 391 miloiko mailegua emateko konpromezua hartu zuen.

□ Umezaintzaren lekualdatzea

Orain arte Umezaintzako haurrak San Xosepe eta Altamiran banatuta egon badira ere, astelehenetik aurrera guztiak San Xosepeko eraikin berrira joango dira. Hori dela eta, asteburu honetan, gaurtik hasita, nafiko lan izango dute Altamiran dauden traste guztiak hartu eta San Xosepera eramaten.

ONGIETORRIA JAI OBERRIEI

- Gorka Muruamendi araz Sanchez, apirilaren 3an.
- Gontzal Hernandez Sanchez, maiatzaren 4ean.
- Mikel Gil Polo, 4ean.
- Jon Ander Fernandez Espinosa, 5ean.
- Kevin Barranca Sanchez, 6an.
- Markel Arizabaleta Diez, 6an.
- Idoia Gomez Obiegan, 8an.
- Leire Espinosa Carballo, 9an.


Txandaka

KONTZIENTZIA ERAGOZPENAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Ekainaren 15ean, Kontzientzia Eragozpenaren Nazioarteko Eguna ospatzen da.

Estatu espainolean, eta nola ez, Euskal Herrian, oihartzun eta esanahi berezia dauka gaurko egunak. Nabaria izan da azken urteotan antimilitarismoak gure artean duen indarra. Gero eta gehiago dira soldaduzka eta ejerzitoari uko eginez insumisio eta desobediencia zibilaren bidea aukeratzen dutenak, eta gero eta handiagoa da soldaduska, ordezkotza zerbitzua, eta ejerzitoaren aurkako jarrera gizartean.

Insumisioaren indarrak jabeturik, eta berau geldiarazi nahian bigundu egin nahi izan dute PSOE eta militarrek zerbitzu militarra; soldaduskaren erreforma eta ordezkotza zerbitzu zibila martxan jartzea horren lekuko. Disfrazak ezin otsoa aldatu, ordea, eta gaur egun insumisioa inoiz baino indartsuago azaltzen zaigu, soldaduska, gastu militarrek, zerbitzu soziala eta ejerzitoa desagertarazteko bi-



Andoni Urzelai (*)

dean.

Kontzientzia Eragozpenaren Nazioarteko Eguna ospatzen den honetan, ezin ahaztu, urtero soldaduska miserablean hiltzen diren hainbat eta hainbat gazte; ezta urtero militarren eskuetan uzten ditugun

milaka eta milaka miloioak ere, eta are gutxiago beren eskubideak aldarrikatu eta militarismoari uko egitearren gartzelaratutak edo epaiketen zai dauden insumisio guztiak ere.

Maiatzaren 15ak, testuinguru honetan, insumisio eta desobediencia zibilaren birbaieztapena ekarri behar du, eta insumisioekiko ustez "demokrata" den Estatu honek, daraman politika errepresiboaren salaketa ere ekarri behar du.

Kontzientzia Eragozpenaren Nazioarteko Egunean insumisio eta antimilitarismoa gero eta indartsuago.

(*) ARRASATEKO ANTIMILITARISTA TALDEKOA

HUETO Doktorea

Eztarria, sudurra, belarriak

Ordua eskatzeko: 79 81 11
79 81 00

Olarte kalea, 43 Arrasate



J. Ramón Stamendi

HARATEGIA

Ferrerias, 20 • Tel. 79 62 28
ARRASATE



Fagorreko Batzar Nagusia Iturripeko kiroldegian burutu zen

Asanblada istilutsuak Fagorren

Zuzendaritzaren indize igoera ez zen onartu

Joan den astean, Fagor taldeko kooperatiben urteko Batzar Nagusi Orokorrak burutu ziren. Aurrez, puntu jakin batzutan ezadostasuna nabari zen Kontseilu Zuzentzaile eta Kontseilu Sozialen artean, eta baita Fagor Taldeko Zuzendaritza Orokorra eta Taldeko Kontseilu Sozialaren artean ere. Estatutu Sozial eta barne erreglamenduko zenbait punturen aldakuntza zela medio, eta horien artean lanpostuetako indizeen batetik - hiruak (4,5) sailkapena irekitzea eta gehienbat zuzendarien lanari ezarri nahi zitzaion tratamendu desberdinean agertu zen bazkideen ezadostasun nabariena.

Aipatutako tratamendu desberdinean zuzendarien diru-sarrerak, merkatuko beren maila berdintsuko jendearen soldatetara parekatzea proposatzen zen, orain gutxiago kobratzen dutela zioten eta. Ondorioz, zuzendari askok errezegi

alde egiten dutela aipatzen zen. Horren aurrean, bazkidegoak, nahiz eta arazoaren jabe dela adierazi, botazioan ezezko jarrera hartu zuen: gutxi gorabehera %30a proposamenaren alde eta %70 aurka, proposamenak aurrera egiteko %67aren baiezkoko behar zuenean. Datu horien arabera, argi dago kooperatibetako gehiengoari ez zitzaizola bat ere gustatu proposatzen zen sistema, ezta zuzendari guztiak orokorki ekipo horretan sartzea ere.

Batzar Nagusi guztiak tentsio giro nabarmenean igaro ziren, Fagor Elektrotresnetakoa batez ere, dimisio mehatxu eta guzti dirudienez, eta oraindik ikusteko dago zenbait kontseilu errektore eta zuzendarik hartuko duten jarrera.

Gainerako puntuetan ez zen aparteko istilurik izan, eta gauzak pentsatuta bezala joan ziren.

Usteak uste

Siadecok duela urte batzu "Arrasateko herriaren kultur eskaria" ikerketa egin zuenetik gauzak erabat aldatu dira, gaur egunean Arrasateko kultur eskaintza ezagutu, jaso eta jakitera emateko lana benetan zaildu egin den arte. Kultur mugida hedatuz joan da eta ikustea besterik ez dago azken bi hilabeteetako herrian sortzen den kultur ekintza ugariak biltzen saiatzen den Ekitaldiak kartulinatxoa, zenbat bider irakurtzen ote den zalantzan jarritakoa, dinamikaz josita agertu zaigu eta. Kontutan hartuta gainera, Amaia obretan dagoela eta negu, udaberri partean Antzokian ez dela ekintzarik burutu, sortzen den kultur egoera aberatsa pozgarria izan beharko litzateke arrasatearrantzat. Pozteko modukoa ezezik aski ezaguna ere behar luke izan, uste bait dut herrian ditugun komunikabideak zeregin honetan diharduten arren, ez dela ahalegin nahikoa. Ahalegina kultur potentziala ezagutarazteaz gain, parte hartze aktiboa sustatzean ere badatza.

Sarritan aurkakoa pentsatzen den arren kultur giroaren hazkunde geratuezin batean murgilduta gaude, erronka horri erakunde zein herritarrok erantzuteko gauza izan behar dugularik behar adinako bitarteko eta baliabideak eskainiz.

Datozen urteetarako desafio galanta!

JON GARAY

URONDO
elektrizitatea



Kataide Industrialdea 5. Pabiloia,
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxes: 77 14 76 ARRASATE

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismokak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak



SAMEGO
GARBIKETAK

Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39

Soldaduskan daudenentzat

San Juan jaiak laster direla eta, Udalak, urtero garai honetan ohi bezala, soldadutza egiten ari diren arrasatear guztien senide eta adiskideei dei egiten die euren helbidea eta eskutitza zuzendu behar zaion nagusiaren izen abizena bidaltzeko. Udalak eskutitz bana bidaltzeko asmoa du jaietarako baimen berezia eman diezaieten eskatuz.

Omenaldia jubilatuei

Datorren ekainaren 24ean omenaldia eskainiko die Udalak herriko aiton-amonei. Bertan parte hartu nahi duten guztientzat, izena emateko epea zabalik dago Udaletxeko bulegoetan. Epe hori ekainaren 16an bukatuko da eta omenaldirako izena emateko orduan beharrezkoa izango da Nortasun Agiri aurkeztea.

Fagorrek 2.200 milioitako kontratuak

Opel markako autoentzat piezak egiteko kontratua sinatu du Fagorrek General Motors enpresarekin; ondorioz, 1.200 milioi PTAko negozioa egingo du urtero. Era berean, Volkswagen-Seat enpresako Polo, Ibiza eta Toledo autoentzat piezak egiteko kontratua ere sinatu du Fagorrek, 1.000 milioikoa alegia. Gogora daiteke, iazko urtean Honda, General Motors eta Renault-France-ekin ere akordioak lortu zituela Fagorrek.



HIES-aren aurkako Kit-ak xiringa, preserbatiboa, alkohol zapiak eta ur destilatua dauzka.


Xiringen salmentak behera

Kit-ak asteburuetan saltzen dira batez ere

Herriko zazpi farmazietan, orain bost urte baino askoz ere xiringa gutxiago saltzen da; beraz, heroina kontsumitzaileen kopurua jaitsi egin dela pentsa daiteke. Botiketan jasotako datuen arabera, duela bost urte Arrasaten, astero HIES-aren aurkako 800 Kit inguru banatzen ziren; gaur egun, berriz, 70 inguru dira. Aipatutako kit horrek, xiringa, preserbatiboa, plastikozko ontzia, alkohol zapiak, ur destilatuz betetako anpuluak eta informazio liburuska biltzen ditu eta 50 pezetatan saltzen da.

Botikarien esanetan, HIES-aren aurkako Kit-en salmenta eguneroko gautzen lehen; orain, asteburuetakoa eta goardia orduetakoa batez ere.

Farmazietako datuak alde batera, Jaurlaritzak diotenaren arabera, azken urtean Arrasaten Xiringa eta Kit-en erabilera %33ko beherapena izan dela aipatu behar. Beherako joera hori nagusi da Euskal Herriko toki gehienetan eta kurioz bada ere, Bergaran %50eko gehitzea gertatu da. Han biltzen ote dira bailarako heroinazaleak?




Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdiak
Erremintak gordetzeko armairuak
Lan egiteko aulkiak

BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak
Makailoa, kroketak eta piper kazolak prestatzen ditugu
Mondragones 7, (Azoka ondoan) ARRASATE Tfnoa: 79 93 07



Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

Basabe industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 88 75
79 75 99



Eskaileraren lekuan arranpa baten beharra dago

Erreabilitazioan egoera txarrean

Egunero 100 gaixo pasatzen dira bertatik

Badira 14 urte Erreabilitazio Zentrua gaur egungo tokian dagoela. Orduetik egoera tamalgarria dela eta, keja asko izan dira bertako langile eta gaixoen aldetik ere, eta orduetik ez da berrikuntzarik egin. Nahiz eta askotan hobekuntzak eskatu, orain arte ez dira heldu. Arazo larriena sarrerakoa da, eskailarak bakarrik daude eta. Arranpa baten beharra askotan azaldu dute, baina ambulanzietako arduradunek jasotzen dituzte gaixoak, banan banan. Guzti horrek, egunegun pasatzen diren gaixoetan

eragiten du, 100 gutxi gorabehera, hoi-etatik 15 gurgildun-aulkietan joaten dira. Gainera beste batzuk, belauneko haustura edo gerriko gaitza dutenak ere zailtasunak izaten dituzte. Adinari dagokionez, 60 urteuk gora dute gehienek.

Bestalde, gimnasioko ormetako hezetasuna dela eta, eragozpenak daude tresneria behar bezala erabili eta ariketak egiteko.

Zentruaren aurrean ambulanzietako aparkalekua ere eskatu dute baina orain zaborra uzteko piboteak jarri dituzte.


Zabarte eta Pedrotxo 37 eta 45 kiloz

Salto del Negroko euskal presoak egiten ari diren gose-grebaren 21. eguna bete zen atzo. Pedro Guridiren senitarteko batek adierazi zuenez, Pedrotxok 45 kilo ditu eta egarri-grebaren ondorioz sueroaz egon da; Zabartek berriz, 37 kilo besterik ez omen dauzka.

Gose-greba hori dela eta, egunero egiten ari diren enkarteladez gain, joan den asteburuan HBko zinegotziak Udaletxeko Pleno Aretoan entzerratu ziren. Era berean, asteazkenean Deba Garaiko LAB-eko delegatuek beste itxialdi eta gose-greba bati ekin zioten. Itxialdia, larunbatean bukatuko da manifestazio batekin, arratsaldeko 8etan.



Joan den asteko zinegotzien itxialdia



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia
Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala




ALMACEN DE MUEBLES
Prezio paregabeak!!
Zatozte!!

Legarre pabiloia. Gipuzkoa Etorb. 6.
ARRASATE Tfnoa: 79 73 32

Begoña
Iurrindegia

Drogeria / Jostailuak
Opariak
Gipuzkoa Etorb. 33,
Musakola Auzoa, Tfnoa: 79 03 73



Ramon Ramila arrasatearrak **Euskadi eta Arrasate mailan rekord-a lortu nahi du.** Horretarako, tomate poteak bata bestearen gainean jarriz, hiru froga egin nahi ditu: dorrea, pareta eta tximinia. Datorren irailean egingo ote duen... ikusiko dugu.




Elkarte barik zeuden Zutik-ekoak, eta seguruen herrian horrela zeuden talde politiko bakarrak izango ziren. Joan den ostiralean, lehen **Jai-Zale** zegoen toki berean eta izen berberarekin, lokal berriaren inaugurazioa egin zen, taberna alde batetik eta elkarte bestetik. Inaugurazioan jende asko ibili zen gora eta behera.



Institutoko hirugarren mailako 107 ikasleek **ikasketa bidai**a egin dute Palma de Mallorcara. Argazkian ezagun da gustora ibili zirela.

SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka
Legutianoko atea, 35 Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ

OTXOĀ

Hazi aukeratuak,
pentsuak eta
fitosanitarioak

Mondragones, 1 ARRASATE
Tfnoa: 79 86 70

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde, 40 Arrasate 79 13 78

Izen
PROPIOAK



Joan den ostiralean elkarteen arteko mus txapelketaren finala jokatu zen, *Uribarri* eta *Egipe* elkarteen artean. Enbido eta hordagoen ondoren, Uribarrikoak txapeldun. Argazkian, ezkerretik eskumara, **Patxi Saizar, Anton Iraburu, Uribarriko lehendakaria, Norberto Errasti** eta **Jose Antonio Lugarizaristi**.



Arrasatetik Garagartzarako bidean dauden **bi kurutzetan lora sorta bat** jarri berri dute. Gurutze hauek Martin Bañez de Artazubiaga eta Juan Bañez de Barrutiaren oroimenez. ▶

● **Joxe Aranzabal**, 39 urte, arrasatearra. Herri.KO, Herri-Komunikabideen berripaper hilabetekariaren arduraduna. Joxe Deustuko Unibertsitatean Historia lizentziatua da; Eskola Politeknikan irakasle izan zen eta Bergarako Udal Euskaltegian zuzendari; baita Arrasate Press eta ATBko zuzendaria ere.

● **Unai Urbina**, 16 urte, bergararra. Arantzazurako Txirrindulari igoerako azken irabazlea. Unai iazko urtera arte, Bergarako Lokatza Txirrindulari Eskolako taldeetan ibili zen; orain, Dorletako Ama Txirrindulari Eskola eta Lokatzak osatzen duten "Caldereria San Pedro" taldeko partaidea da.

● **Jose Luis Ormaetxea "Txipi"** arrasatearrak pasa den asteazkenean egin zuen Udal Euskara Batzordearen aurrean Arrasateko Toponimiari buruzko lanaren aurkezpena.

ESLU

ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
Arrasate



Alkoholarekin arazoak dauzkazu?

Agian, "Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!!

Alkoholiko Anonimoak
3. areako Informazio bulegoa (Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38



Arrasate Pasealekua 4,
ARRASATE Tfnoa: 79 14 90

Plus Ultra
taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE Tfnoa: 79 20 57



Joan den astean **Fagorreko asanblada orokorra** burutu zen Iturripeko kiroldegian. Hori dela eta inguruko auzoak autoz bete ziren. Urbe auzoko bizilagun batek dei egin zigun, esanez auto gehienak ondo aparkatuta zeudela, baina batzuk ez zutela autoak berdeguneen gainean lagatzeko lotsarik izan. Argazkikoak lekuko.



Jose Antonio Santano Kirol Diputatu gaztea **Import Arrasate** lantegia ikusten izan zen joan den astean, orain arte egindakoaren berri jaso eta etorkizunerako zein egitasmo dauden ezagutzeko aukera eskaini zioten Diputatu sozialistari.



Arrasate Komunikabideak (ARKO) elkarteak asteartean egin zuen prentsaren aurreko aurkezpena Donostiako Diputazioan. ARKOko ordezkariekin batera **Mari Karmen Garmendia**, **Garbiñe Egibar** Diputazioko Kultura Zuzendaria eta **Xabier Zubizarreta** alkatea izan ziren.

Herri-KO
Herri Komunikabideak

1992ko abuztuaren 14an, Herri-KO elkarteak bere lehen argitalpena egin zuen. Argitalpena honen bidez, herri komunikabideen munduan aurreratu eta herri komunikabideen bidez, herriaren berri emateko eta herriaren arteko komunikazioa hobetzeko.

ELKARREKIN ALDIRERA

MIKEL BRIZAR
Herri-KOko lehendakaria

◀ **Herri.KO** izena darama ARKO argitaratu eta hilean behin herri-komunikabideei buruzko informazioa emango duen berripaperak. Lau orrialde izango ditu eta herri komunikabetan banatuko da hilean behin.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

- * Diagnostikoa - Orientazioa
- * Estimulazio goiztiarra
- * Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkun berreziera)
- * Logopedia
- * Laguntza terapia
- * Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
ARRASATE TFNOA: 79 48 77



JOSU TXOKOLATEGIA KAFETEGIA

Elkano, 25
ARRASATE
Tfnoa: 77 03 66

ENARA OSAGIRRIAK

Maalako Errabala, 21
Tfnoa: 79 62 32
20500 Arrasate

JOSTEKO OIHALAK

Errekabarren, 20
ARETXABALETA Tfnoa: 79 80 90



Argi Ibili txapeldun!!

ZABALETA Iurrindegia

Arano maisua, 2 Tfnoa: 79 12 32 ARRASATE

eya

ELEKTROTRESNAK

Argizatze tresnetan
aukera zabala

Iturriotz, 21 Tfnoa: 79 03 84 ARRASATE



■ Finala hasi aurretik, V. C. *Daglas* eta G. P. *Noski* -k hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partidua jokatu zuten. Azkenean, V. C. *Daglas*-ek lortu zuen hirugarren postu hori, samur gainera.



■ Berotze ariketak egitea komenigarria izaten da, eta *Los Heredia* taldekoek egin, egin zituzten; baina ez dirudi behar bezala berotu zirenik, partiduan sartzea asko kostatzen da.



■ Ikusleentzat Zaldibarko frontoia ez da oso toki aproposa eta horregatik, berandu samar iritsi zirenek ezin izan zuten ikusleku egokirik aurkitu. Gauzak horrela, bankuak, furgonetak, ziburuak eta hobeto ikusteko aprobetxa zitekeen edozein miradore hartu zuten zaleek.



Bodisca s.l.

Zeramikazko pabimentu eta gaineztaldurak

Zeramikazko pabimentu eta gaineztaldurak.

Zatoz ireki berri dugun lokalera.

Atseginez hartuko zaitugu.

Otalora z/g. Zarugalde, 3
Tfnoa: 79 65 25 ARRASATE

B

O

Beatriz oinetakoak

Erdiko kale, 11 Tfnoa: 79 14 33 ARRASATE



■ Parekotasunaren aldeko apustua egin zuten ikusle gehienek eta baita bihotza *Los Heredia*-ren alde jarri ere, baina *Argi Ibilkoek* errepaso ederra eman zien, nagusitasun handia erakutsiz.



■ *Argi Ibili* jaun eta jabe izan zen hasiera hasieratik. Hala ere, gauzak berdintzen saiatu zire *Los Heredia* taldekoak, baina alperrikako ahalegina izan zen, egun horretan behintzat, hobeak izan zirela erakutsi zuten eta besteek.



■ *Los Heredia* baino aukera hobeak izan zituzten *Argi Ibilkoek*, baita egin zituztenak hobeto aprobetxatu ere. *Argi Ibilkoen* erasoaldiak gelditzeko ahaleginetan, makina bat lan izan zuen *Los Heredia* taldeko atezainak.

**Jarraitu urratsa...
ABANTAILA AŞKO IZANGO DUZU.**

Olarte, 9 ARRASATE

ZAPATODOS

ARRASATE PENTSUAK

- Hens pentsuak
- Etxeko abereentzako janari eta osagarriak
- Labore eta haziak
- Lorazaintza, zeramika eta landareak
- Fitosanitarioak
- Txori eta arrainak



Zarugalde, 19 eta Otalora z/g
Tfnoa: 77 06 67 ARRASATE





Zaldibarko Futbito-txapelketaren Finala

■ Partidua *Argi Ibil*-ren garaipenez bukatu eta gero, sarien txanda: Urdaiazpiko zein garaikurrak edo kamisetak, jokalaria onenentzat, txapeldunentzat, bigarren eta hirugarrenentzat, kiroltasun sariak. Sarien banaketa egiteko, antolatzaileak, AUKEAko ordezkariak, Mondrako Porru eta Arkauz, dendariak, etab. Dena dela, saririk aipagarrienak futbolzaleen txaloak.



eya

SUKALDEAK

Dekorazioko espezialitatea:

Sukaldeak

**BERTAKO ETA INPORTATUTAKO
SUKALDE ALTZARIAK**


**Etxeko altzariak
Opariak**


Ignazio Zuloaga, 4 Tfnoa: 79 05 07 ARRASATE

URRE BITXITEGIA

Bitxigintzako azken nobedadeak zure esku oso prezio interesgarrian

Maalako Errabala, 8 ARRASATE





■ Andres atezainak jaso zuen bigarren saria eta talde biek ez zuten argazia elkarren ondoan ateratzeko eragozpenik izan. Kiroltasuna irabazle aurten ere.

■ Azkenik, Argi Ibili txapeldun eta txapeldunaren saria jasotzeko Ramon Luengo, Arrasateko futbolaren alde lan asko egin duen jokalaria eta baita Argi Ibili-ri aurtengo Zaldibarko Futbito Txapelketa irabazteko lagundu diona. Zorionak berari eta bere taldeari!

**DAGLAS
B I D E O
K L U B A**


Otalora, 25 etxabea
Tfnoa: 79 78 19
ARRASATE

Uriarte
SPORT

Olarte, 6 Tfnoa: 79 27 78
ARRASATE



Zer erizten diozu Zaldibarko Futbito Txapelketari?




Karlos Urzelai

Bukaera aldean maila ona ikusten ari gara eta gaur, ez dakit zergatik, baina oso jokaldi politak egin dituzte.



Edurne Alonso

Nire ustez ondo dago, asteburuetan zerbait ikusteko beste aukera bat da.




Markel Urrutia

Ondo dago jendeak kirola egitea, baliteke hemendik urte batzutura nik ere hemen jokatzea.



Kristina Ortubai

Jende askok hartzen du parte eta gazteriarentzat ekintza ona da. Uste dut gazteriak ekintza asko behar dituela.




Dani Larrea

Ondo dago, jende askok hartzen du parte eta ikusle asko egoten da; gainera, kuadrilen artean giro polita nabaritzen da.




Jabier Ajuria

Oso ondo dago. Lehen kendu egin zuten eta orain, Zaldibar erdigunean dagoenez, giro ederra sortzen da. Ni astero etortzen naiz.



Jesus Mari Domingo

Kirola egin eta ikusteko aukera ona da.



Luis Mari Iriondo

Lehenengo aldiz etorri naiz, baina oso ondo dagoela uste dut, jende asko mugitzen du eta.

comercial
san juan

Garibal, 12 Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-JARTZEAK


Zerkaosteta, 4 Tfnoa: 79 13 84



Bea Alkalde

“Jendea prest dago jokatzeko, ez laguntzeko”

Bea Alkalde iaz sartu zen Zaldibarko Futbito Txapelketako antolakuntzan eta oraindik ere, txapelketa honetan lanean dabilen emakumezko bakarra da. Urte beteko esperientzia nahikoa izan du honelako txapelketa bat zer den konturatzeko.



— Zergatik Zaldibarko antolakuntzan?

— Lehen futbolean jokatzen nuen, baina lesio baten erruz utzi egin behar izan nuen. Futbola gustatzen zaidanez, astebururo etortzen nintzen Zaldibarrera, antolatzailerak konturatu egin ziren eta laguntzea proposatu zidaten. Proposamena onartu egin nuen eta hemen nabil.

— Eta zer aurkitu duzu?

— Kriston mobida. Kanpotik oso erraz ikusten da guztia, baina antolatze lanetarako oso jende gutxi gaude eta sakrifizio handia

da astebururo Zaldibar edo Iturripen egon behar izatea. Urritik maiatzeraino ia ez dugu asteburu bakar bat libre izan. Azken finean, garbi dago jendea jokatzeko prest dagoela baina ez laguntzeko.

— Horrela disfrutatzen da?

— Futbola gustatzen bazaizu, bai. Hasiéran ez da oso polita, talde asko daude eta diferentzia handiak daude batetik bestera, lana handiago izateaz gain. Bigarren fasetik aurrera futbola ikusten hasten da.

— Onenak irabazten du?

— Ez, iaz, esaterako niretzat sorpresa handia izan zen Bar Kajoi taldeak finala jokatzea. Ondo jokatzeko asko balio du, baina zorreak ere badauka zer ikusirik.

— Emakumezko talderik?

— Oso zaila iruditzen zait talderen bat ateratzea, lotsagatik batez ere. Txapelketan jokatu duen Anbotoste taldearekin behin atera ziren neskak, baina ez da gauza normala. Ikastetxeetan emakumezkoek berdin jokatzen dute, baina oso gazteak direnez, ez dute aukerarik Zaldibarren jolasteko.

— Balantze gisa?

— Uste dut nahiko ondo atera dela, hemen gaudenok ez dugu aparteko arazorik somatu eta hemendik kanpo ere ez dut uste gauza txarrik entzun denik. 1.000 pertsona mugitu eta ezer ez gertatzeak uste dut zerbait esan nahi duela.

IOSU

argazki denda

Olarte, 11 Tfnoa: 79 82 60 ARRASATE

**EKAINEAN
BIDEO IKASTAROAK!!
Zatoz informazio bila**

Ehune

Apainketa

Etxe txukuna
Txoko kuttuna

Otalora, 21 Tfnoa: 77 11 48 ARRASATE



Txutak

Gogoratu beharreko batzuk

Beno, amaitu da aurten goa ere, eta Zaldibarko Futbito Txapelketako garaileen zerrendan badago izen berri bat: Argi Ibili. Merezimendu osoz, gainera.

Hemendik urte batzutarra, edo urrun joan barik datorren urtean bertan, gehien gogoratuko den izena horixe izango da seguruen. Hala ere, bada ahaztuko diren baina era berean ahaztezinak diren beste izen asko: Lehenik, ezer berezia egiteko esperantzarik izan ez eta astero-astero jokatzera



agertu diren taldeena. Bigarren, inolako saririk eskatu barik partiduetan legea ezartzeko prest izan diren arbi-

troena. Hirugarren, era batera edo bestera, antolakuntza lanetan ibili diren guztiena. Azkenik, diru-laguntzaren

bat eman duten guztiena.

Ez gustoz, baina hurrengo urteetako edizioei begira, beste izen batzuk ere gogoratu eta kontuan hartzekoak dira: Lehenengo, txapelketari ekin eta zer eginik ez zutela ikusi eta gero, antolatzailerik buru-hauste izugarriak sortaraziz txapelketa utzi zutena. Eta bigarren, bere jokiera txarragatik, ezagunak egin diren jokalarik eta taldeena.

Horiek ez dira ahaztu behar, baina ezer gogoratzekotan, hobe besteak gogoratzea.

GOZOTEGIA

Erdiko kale, 28 Tfnoa: 79 15 34
ARRASATE

Kar mele Agirregabiria Eskoriatzako *Axtroki* euskara taldeko lehendakaria da. Datorren 21ean, Udaletxeko Areto Nagusian eta arratsaldeko 8etan batzar berezi bat burutu behar du *Axtrokik*.

Kar mele Agirregabiria

Eskoriatzan “Axtroki” euskararen alde



— Zertarako 21eko batzarrara?

— Jendeari *Axtroki* zer den jakin arazi nahi diogu, zergatik eta zertarako sortu zen eta zeintzuk diren gure asmoak. Gure egitura nolakoa den azaldu eta bazkidetza bultzatzea izango lirarteke batzarraren helburuak, dirua eta jendea lortzeko, jende berriaren premia dugu eta.

— Aparteko deialdirik egin duzue?

— Bai, gonbidapenak etxe etxe banatu ditugu. Horretaz gain, hilaren 17an, igandean, plazan mahai bat jartzeko asmoa dugu eta hor ere, batzarrerako deialdia banatuko da eta bazkide txartelak eta batzordetan sartzeko gonbidapena luzatuko da. Bazkide-kuotaren berri emateko asmoa ere badugu, hilean 300 PTAKoa izango da eta. Bukatzeko, taldearen estatutuen aurkezpena egingo da eta mahai berria eratu.

— Zeintzuk dira batzordeak eta taldearen egitura?

— Lana zortzi komisiotan banatuta daukagu: Ekonomia, diru-kontuez arduratzeko. Salaketa-txaloketa, itzulpenak eta zuzenketak egiteko laguntza eskainiz eskutitzak bidaltzeaz arduratzen dena. Eskoriatza Komunikabideetan, Eskoriatzari buruz komunikabideetan agertzen diren berriak euskaraz atera daitezen. Bideoa, euskal bideoteka egin eta es-

kutzen duenari zerbitzu hori eskaintzeko. “Ze barri” aldizkaria, bi hilabetetan behin ateratzen dena. Jaiak, Udalarekin elkarlanean egitarauak egin eta aurrera ateratzen arduratzeko. Kanpoko ekintzak eta Arrasate Pressen banatzaile taldea. Azkenik, Euskararen Erabilpena, jendeak euskaraz egiteko kanpainak bultzatzeko. Egitura eta funtzionamendua ohizkoak dira eta guztira, berrogei inguru izango gara. Bestalde, oso jende gaztea dugula esan behar eta uste

dugu adinekoen beharra ere badugula, gauzak baretzeko gaitasuna duen jendearena. 30 urtetik gorako jendea inplikatu nahi dugu, orain taldeak duen batazbesteko adina oso bajua da eta.

— Taldearen izena nondik?

— Eskoriatzan *Axtroki* izeneko lekuan urrezko ontzi famatu batzuk aurkitu ziren 75ean nolabait herriko kulturarekin zerikusia duen izena iruditu zitzaigun. Gainera, Aitzorroztz eta horrelako badira, beste gauza batzuetan

rako erabili izan direnak.

—Momentu honetan *Axtrokik* batzar honekin bazkideak egitea du helburu nagusi?

—Bai, alde batetik dirua lortzeko, bazkidetza kuota diru iturri izaten da eta, eta bestaldetik lanerako jendea eta batez ere jende berria hurbil dadin. Taldea talde irekia dela ikustarazi nahi diogu herritarri, lotura politikorik gabea eta era guztitako jendez osatua. Bestalde, ez da ahozatu behar ezagutzera emate hutsa ere badela beste helburu bat, orainarte herrian jende askok *Axtroki* Zebbarri aldizkaria bakarrik dela pentsatzen du eta.

—Jendez eta diruz estu ibilita, zer erlazio dago egiten duzuen lanaren eta bitartekoen artean?

—Beno, orain mugatuta gaude, alde bietatik ditugun arazoak tarteko. Beste makina bat lan bururatzen zaizkigu baina ezin ditugu aurrera atera. Pare bat kanpaina geldik ditugu orain arte egin ezin ditugulako eta bestalde pentsatzen dugu Zebbarri ere sarriago atera daitekela baina ezinezkoa da. Oraindik ez dira Udaleko aurrekontuak onartu eta diruz oso gaizki gaude. Ia batzarraren ondoren gauzak hobetzen diren.

—Eskoriatza herri epela ere bada bestela horrelako gauzetan, ezta?

—Epela ez, oso herri hotza da, baina ez horrelako gauzetarako bakarrik, gauza guztietan da halakoa. Edozer gauza antolatuta ere, jendeak ez du parte hartzen, bakoitza bere munduan bizi da eta ez da parte hartzera zabaltzen. Horretan baditu ezberdintasuna beste herri batzuekin gonbaratuta. Horren kontra zer egin daiteken? Geuk ba-geneki...

— **“Eskoriatza oso herri hotza da; jendeak ez du ezertan parte hartzen”**

Gaixoen bisitariak

Emakumeen borondatezko lana

Eskualde Ospitalean, Iturbide Egoitzan, edo etxean erretiratuta bizi diren gaixo eta aitajaun-amandreak bisitatzeko ematen dute euren denbora librea. Eskerrikaskoren truke ari dira, baina gaixoen asko eskertzen diete. Izan ere, zaharrek oso gutxi behar dute, baina behar duten apurraren behar handia dute.

Eskerrikaskoren truke lan egitea eta egiten denaren truke zer espero izan gabe jardutea modatik pasa zela esaten dute batzuk. Bien bitartean, bada mugimendubat gizartean babesik gutxienarekin dauden batzuetaz kezkatutik euren laguntza guztia ematen duena. Lehen gaixo pastoraltza esaten zitzaien, baina orain nahiago dute osasun pastoraltza esatea. Osasun egoera bilatzea da euren helburua, eta gaixotasunean bizi direnei euren sufrimendua, bakar-dadea, edo arazoak arintzea.

Gehienak emakumeak dira. Izan ere, arazoak aztertzen sartu barik, gizon-ekoez ez dute ohiturarik horrelakoetan sartzeko. Osasun pastoraltzan lanean diharduten emakumeek ez diote horri garrantzirik ematen. "Beharbada gizartea materializatuta egongo da, desumanizatuta edo balore asko galdua, baina guk ez diogu horri begiratzen, ba-

rrutik ateratzen zaigulako egiten digu, ingurukoek zer egiten duten begiratu barik. Jarrera horrek satisfazio handia ematen du eta guri horrek laguntzen digu aurrrera jarraitzeko".

"Gaixorik nengoen eta..."

Baina ez da alde humanitariotik bakarrik begiratzeko kontua. Lan honetan dihardutenak kristauak dira eta Ebangelioetako

esaldi batek dioena betetzen dute: "Gaixorik nengoen eta bisitatzera etorri zineten". Parrokia bakoitzean talde bat dago eta antolamenduak arziprestalde guztian funtzionatzen du. Arrasaten 30 inguru izango dira eta lan ezberdinetan daude sartuta, noizean behingo bilera eta prestakuntzetaz gain. Alde batetik, Caritasekin etengabeko harremanean daude euren lanean beharrean aurkitzen dituzten familien egoera aztertu eta behar izanez gero, laguntzak bideratzeko asmoz. Etxean erretiratuta dauden gaixoen bisitatzeko dituzte, batzuk noizean behin eta beste batzuk ia egunero edo maiztasun handiz. "Bakarrik dagoenak asko estimatzen du norbait ikustera joan eta kaleko edo bere lagunen berriak eramatea, edo beste barik konpainia egitera edo antzinako kontuak gogoratzea joatea". Arrasaten 15 urte inguru dira hasi zirela eta oso harrera ona izan dute beti. Jendearengana hurbiltzearen



Gaixoen asko eskertzen du konpainia egitea hutsa

zailtasunaz galdetzean, "kontu handiz ibiltzen gara, —esaten dute— izan ere, oso gauza delikatuoa da etxeetara joatea eta haseran batzutan errezeluz hartu arren, gero oso ona da harrera. Gainera arazoa ez da askotan gaixoa bera izaten, familia baizik, eta eurekin ere harremanetan egon beharra dago".

Etxetik irten ezinda bizi diren adineko pertsona eta gaixoak asko dira herrian, eta hamabostean behin Gure Jauna eramatera joaten dira apaizak ere. Horri ere berebiziko garrantzia ematen diete taldekoek, "gaixoei eurek izugarri estimatzen dute".

Ospitaleko lana

Baina etxeetara joatea ez da egiten duten lan bakarra. Iturbideko Zaharren egoitzara ere joaten dira astean zehar eta gero asteburuetan mezetara eramatera. Eskualde ospitalean burutzen dute hala ere, beharbada lanik astunena izan daitekeena. Denboraldi luzeak eman dituzte ingresaturik dagoen jendea zaintzen. "Txandak antolatzen ditugu geure artean, eta familiarik ez dutenak, Santa Agedako gaixoak eta ekonomikoki ahalbiderik ez dutenak atenditzen dira batez ere. Kasu batzutan hiru hilabete ere eman izan ditugu egunero hara joaten. Gaixorik dagoena nor den ez dugu begi-



30 inguru dira Arrasaten Osasun Pastoraltzan lanean dihardutenak.

ratzen, baina beharrik handiena daukatenak dira lehentasuna dutenak. Kasu asko dira familia egoera ekonomiko onean egon arren, zaindu ezin dutenak eta lan hori egitea guri eskatzen digutenak. Horre-

lakoetan, langabezia dagoen norbait topatzen dugu dirua irabazte alderalan hori egin dezan". Gasteizko eritetxean dauden arrasatearrak ere bisitatzen dituzte, eta bakoitzaren egoera pertsonalaren eta duen laguntzaren

arabera, denbora gehiagó edo gutxiago egiten dute berarekin.

Gaixoei lan egitea ez da gauza erraza eta emakume hauek ez dira nola hala ari, prestakuntza jasotzen dute aldiari behin. Alde batetik, bilera eta koordinazio handia dago euren artean, herri mailan bezala eskualdeko herri ezberdinetan horretan dihardutenen artean ere. Gainera, urtean zehar prestakuntzako ikastaroak izaten dituzte, hitzaldiak, pastoralari buruzkoak zein psikologo espezialduen emandako aholku eta orientabideak.

Lan handia egiten dute, eta gustora gainera. Hala ere, batzutan jende falta somatzen dute, eta eurekin batera gazteak sartzea nahi lukete. "Bizitzari zentzua emateko balio du, eta lagundu izanaren poza eta satisfazioa lortzen ditubere denbora librearen besteei eta beharrean daudenei laguntzen dienak".

Osasun Pastoraltzaren eguna

Hilean behin parrokia bakoitzean meza, urtean zehar artziprestaldeko herri ezberdinetan beste hainbat ekintza eta bilera, irteerak eta ibilaldian antolatzen dituzte gaixoentzat. Urtean behin peregrinazioa ere egiten da santutegi batera. Aurten Urkiolara joango dira uztailan. Meza, inguruak ezagutzea, bazkaria eta dantzaldia izaten dira, elkar ezagutzeko eta egunerokotasunetik irteteko modu atsegina. 200-300 lagun inguru joaten dira urtero.

Hala ere, maitzaren 24ean Osasun Pastoraltzaren eguna ospatzen da eta horrek izugarriko garrantzia du taldearentzat. Gaur egun horretan ari dira lanean, horixe da taldearen oraingo erronka, eguneroko lan isilari beharbada ageriko ikutua ematen diona.

**Basabe
jatetxea**

Menu eta afariak Boda eta banketeak

Industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoak: 79 91 84
77 07 94

Altzariak
Diseinua
Apainketa
**M
ARENAZA**

Bizkai, 1 ARETXABALETA Tfnoa: 79 08 07



Joan den igandean Ojala-Zelaian korrikalariak bildu ziren moduan, aste honetan Arrasate-Oñati tokatzen da


Arrasate-Oñati lasterketaren X. edizioa igandean

Kross-en garaia iritsi da bailarara, joan den igandean Santi Azurmendi azpeitiarrak Ojala-Zelaikoa irabazi zuen eta igande honetan Arrasate-Oñati proba famatuaren hamargarren edizioa burutuko da. Herri bien artean dauden hamaika kilometroak bete

nahiean, seguruen jende asko bilduko da Portaloian goizeko 11.30etarako. Gehienen helburua, proba bukatzea; gainontzekoena, irabazi eta ahal izanez gero, Diego Garcia azkoitiarraren 34 minutu eta 16 segundutako errekorra gaintzea.

Hurrengo partidua

Beste porrot bat Galdakaon eta Mondra esku hutsik itzuli zen. Partidua galtzeko ez zen arrazoi bakarra arbitroaren jokaera izan, baina bai aipagarrien eta erabakiorrena, baloia jokoan jarri zen une beretik bizkaitarren alde egin zuen eta.



Joanak joan, asteburu honetan Durango taldea etorriko da Atxabalpera. Arrasatearrek derrigorrez bete beharko duten lana, partidua irabaztea. Garai-pena lortuz gero, seguruen datorren denboraldian Mondrak berriro ere hirugarren mailan jokatzeko aukera izango du.

Taldea ez dago ondo, hori ezingo du inork ukatu, baina Arkauz-ek zioenez, *igandekoa nola edo hala irabazi beharreko partidua da*. Ahalegin horretan burubelarri arituko dira mondragoetarrek, horri buruzko dudarik ez dago. Hala ere, ahalegin horiek alperrikakoak izan daitezke zaltetuen laguntzarik ez badago. Zentzu horretan, Arkauzek Mondra-zaleei dei berezi bat egin nahi zien igandean Atxabalpera joan eta *beste igande batez taldearen jokoa aguantatzeko*.



CSKA Mosku eta Mepamsa, Iturripen

Larunbatean arratsaldeko 6.30etatik aurrera, Iturripeko kiroldegian CSKA Mosku eta Mepamsa taldeen arteko eskubaloitako partidua ikusteko aukera izango da. Sarrerak aurrez erosi nahi dituztenei, Iturriotz, Irati, Kajoi eta Rumba tabernetan aurki ditzaketela esan behar. Sarrerak 500 PTA kobratuko da.

Kirolak Musakolan

Musakolako San Isidro jaien barnean, kirol eskaintza izugarria iragaritzen da: larunbatean, goizeko 9etan mountain-bike irteera, 10.30etan pilota partidua eta arratsaldeko 5.30etan soka-tira txapelketa. Igandean, berriro, arratsaldeko 5.30etatik aurrera herri-kirolak nagusi: aizkolariak, harrijasotzaileak, ahari jokoa...

Kabia altzariak

Gipuzkoako Etorbidea, 28 ARRASATE Tfnoa: 79 27 70

IBARRA Garajea S.A.



EBRO
NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

PODIUMA

UNAI URBINA

Bikain aldapan gora



Unai Urbinak hiru urte daramatza txirrindularitzan, eta aurtengo denboraldia jubenilen artean egiten duen lehenengoa da. Orain arte, Unai ez zuen gauza aipagarriegirik egin, baina joan den igandean hordago handia bota eta Arantzazurako igoera irabazi zuen. *"Irabazten dudan lehen proba da eta poz handia sentitu nuen helmuga igarotzerakoan. Maldan gora ondo moldatzen naiz eta horregatik niretzat proba ona zen; aldatz behera, berriz, pisu gutxikoa naizenez gaizki ibiltzen naiz, beti sufritzen"*.

Txirrindularitzan zerbait egin nahi duenak, bai aldapan gora eta baita behera ere, sufritzen ikasi behar du derrigorrez. Hain kirol gogorra izanda, Unai sufrimenduari ez dio beldurrik, bizikletan ibiltzen hasi zenean lehiaketetan ibiltzeko asmorik ez bazuen ere. *"Aitak erosi zidan lehen txirrindua, udaran buelta batzuk egiteko, ez beste ezertarako. Paseoan ibiltzeko erabiltzen nuen, baina lagun batek lehiaketetan sartzeko esan zidan eta inbidiaz edo, hasi egin nintzen"*.

Hasi bazen, hasi zen, eta horrek, astebururoko konpromenez gain, egunerokoa hartzerarekin bultzatu du Unai. *"Aste osoan zehar egiten ditu-*

gu entrenamenduak. Asteburuan, entrenatzaileak egunero zer motatako entrenamendua egin behar dugun esaten digu, zenbat kilometro egin eta zein erritmotan". Unai dioenez, ia egunero entrenatzen omen du eta beharra ere badu, denboraldi hasieratik hona diferentzia handia igarri duela dio eta.

Egunero entrenatu beharra eta astebururo sufritzeak gogorra badirudi ere, Unai gustora dabil. *"Gogorra da, baina gustatuz gero ez da hain gogorra egiten. Gainera kontuan hartu behar da ondo tratatzen gaituztela, bizikletan ibiltzeko arropak ematen dizkigute, probetara eramaten gaituzte eta proba bukatuz gero 800 PTA ematen dizkigute"*.

Marino Lejarreta du eredutzat Unai, eta aurtengo Espainiako Itzuliko irabazlearen pronostikoa ematera auzartzen da: Tony Romminger.

◆ Deba Arroa Txapelketako finala

Herrien arteko Txapelketaren barruan, Arrasate eta Oñatiren arteko neurketa jokatu zen joan den asteburuan. Arrasatearren aldekoa izan zen neurketa, jokaturako hiru partiduak irabazi zituzten eta. Kanporaketaren buelta, igandean izango da, 11etan Iturripen.

Txapelketa beraien barruan, baina palaz, Orioren aurkako neurketa. Bi partidu jokatu ziren eta bietan oriotarrak nagusi. Larunbat honetan, goizeko 10.30etatik aurrera, Musakolako kiroldegian bueltako partiduak.

Bukatzeko, aipatu behar da jubencil mailako pilotariak Deba Arroa Txapelketako finala jokatuko dute larunbatean, Antzuolan eta bertako bikotearen aurka, arratsaldeko 4.30etan.

◆ Urbina garaile Arantzazun


Jubenil mailako txirrindularientzat, igandean San Isidro saria burutu zen Zumarragan, irabazlea Jon Azkune izan zen eta berarekin batera, baina seigarren postuan, Dorletako Zigor Urain sartu zen. Bestalde, Alsasuan, Euskal Ligaren barruan, Alberto Roldanek bigarren postua lortu zuen. Azkenik, Arantzazurako igoeran, Unai Urbina, Caldereria San Pedroko txirrindulari lortu zuen bergararrak garaipena.

◆ Eskubaloian beste garaipen bat

Arrasate Kirolak eskubaloia taldea ia Gipuzkoako Federazioko finalerako sailkatu da, bi partiduren faltan hiru puntuetako abantaila du eta. Azken partiduan, arrasatearrek 17 eta 25 irabazi zioten Jauja Mutriku taldeari.

◆ Centraljet-eko neskak behera

Centraljet-eko emakumezko taldeak, 61-65 galdu zuen etxean Jara taldearen aurka, Porrot horren ondorioz, kategorian galdu dute arrasatearrek.




EE.BB.

Parlance

- Ikasi ingelesa "rancho" amerikar batean.
- Gazte eta helduentzako ikastaroak Carolina del Norte famili-giro sanoan.

Informazioa: Ferrerías, 11 etxabea.
Tfnoa: 77 06 83



IRLANDA

Parlance

- Ingeleseko ikastaroak eta kirola gazte eta helduentzat.
- Arrasateetik bertatik lagunduta.
- Familia bikainak.

Informazioa: Ferrerías, 11 etxabea.
Tfnoa: 77 06 83

Gabriel Elorriaga Dka.

Loditasuna • Zelulitia Zelulolipolisiaren tratamendua

Santa Kruz, 24-1ª (1ª C eskailera)
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54

EUSKAL FAMILIETAN IKASI!!!

Euskara ikasten
ari zaretenentzako egonaldiak
euskal familietan.

**Eusko Jaurlaritzak antolatzen duen "Egonaldiak Familia Euskaldunetan"
1992eko plangintzan parte hartu nahi duten ikasleentzako arauak:**

- Plangintza 1992eko **uztailetik irailera bitartean** gauzatzen da.
- Ikasle bakoitzaren egonaldia **HILEBETEKOA** izango da.
- Ikasleek **18tik 35 urtera** bitarteko adina izan behar dute.
- Parte hartu nahi duten ikasleek **inskripzio-fitxa bete** eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailera bidali behar dute. Inskripzio-fitxa jaso, berriz, bai Udaleko Euskara Zerbitzuan zein Udal Euskaltegian edo AEKn jaso daitezke.
- Inskripzio-fitxa aurkezteko azken eguna maiatzaren 29a da.
- Hartuko duen familiari **15.000 PTA** ordaindu beharko dizkio kasleak berak.
- **Langabetuei erreztasunak** emango zaizkie ordainketa egin ahal izateko.



Informazio gehiagorako, jo Udaleko Euskara Zerbitzura. Tfnoa: 79 09 00

Zerbitzu sektoreko lanbide moduluak

Gure gizartean ekonomia sektoreen egiturapenean al-daketa garrantzitsua gertatzen ari denez, 2000. urterako lanpostuei buruzko portzentaiak honako hauek izango direla aurrakusten da: %32'4 industria sektorean, %56'7 zerbitzu sektorean.

Kontuan izan behar den beste gauza bat, lanbide-heziketan hobekuntza lortu beharra da.

Beraz, bi premisa hauek:

a) Enplegu eskaintzako sektoreen egiturapenaren al-daketak.

b) Bataz besteko hezkuntza maila hobetu beharrrak.

Azken horrek bultzatu dituzte, Hezibideren barruan, Goi mailako Batxilergoa ematen duten ikastetxeak III. Mailako Lanbide-Moduluen eskaintza, industriarekiko osagarri edota ezberdin izan litezkeen beste arlo batzuetara dibertsifikatzera. Horre-



la, Zientzietako edo Humanitateetako Batxilergoak egiten dituzten ikasleei zerbitzu-sektoreko Lanbide-Heziketarako ikasketak eskaintzen zaizkie.

Goimailako lanbide-modulu hauek aditu edo espezialistak sortuko dituzte lanbide arlo desberdinetan. Europan ezarria eta hedatua dagoen hezkuntz sistemare-

kiko homologazio-bide hau dagoeneko hemen ere badoa poliki-poliki ezarriz, eta LOGSEren aplikazioaz erabat hedatuko da.

III.mailako modulu hauetara, Goimailako Batxilergoko 2., UBI, 2. gradu L.H. edo 20 urtez gorakoen-tzako proba orokor eta berezi bat gaindituz bakarrik sar daiteke.

Zerbitzu sektoreko Modulu hauetan arlo ezberdin asko sar daitezke, oso ego-kiak Goimailako Batxilergo Zientifiko edo Humanistika egiten ari diren ikasleentzat.

Gaur egun, ALMENEk nahiz S. VIATORek ematen du honelako moduluren bat.

ALMEN: Gizarte eta Kultur Ekintzetako Teknikaria eta Gorputz-ekintza eta kirol-animazioko Teknikaria

SAN VIATOR: Inguru-giro-Osasuna

Arlo hauetan dauden beharrrak bete nahi dira, baita arlo hauetarako gaitasuna duten gazteei lan-aukera eskaini ere. Horretarako lan-merkatuan benetan dauden beharrrak hartzen dira kontuan, eta enpresetako praktiketara bideratzen da ikaslearen prestakuntzako denbora guztiaren %25.

MAÑOLE EZENARRO
ALMENEKO ZUZENDARIA
HEZIBIDE

IRAGARKI HAU 5.800 ETXETAN SARTU DA.


**ZUREA ERE SARTUKO DA
PUBLIZITATERAKO**

ARRASATE PRESS AUKERATUZ GERO.

Senideen arteko VII. Topaketak Aita Mennin

Asteburu honetan, Aita Menni Ospitalean Senideen arteko VII. Topaketak burutuko dira. Topaketa hauen helburua gaixoen senideen eta Ospitalaren arteko harremanak estutzea litzateke. Jende askoren presentzia espero denez, egitarau berdina errepikatuko da bi egunetan, larunbata eta igandean.

Ekintzak goizeko 11.30etan hasiko dira, Senide eta Gaixo Psikikoen Elkartearen Hitzaldiarekin. Ondoren, 12ak aldera, gaixoak egindako antzerki emanaldia ikusteko aukera izango da. Antzerkia bukatu-



takoan, bazkaltzera bilduko dira Aita Mennin daudenak eta bazkalostean dantzaldia izango da.

Esan bezala, bi egunetako egitaraua berbera izango da,

baina igandean antzerkia hamabietan hasi beharrean ordubatean hasiko da, hamabietan meza izango da eta.

◆ Eskola arteko abesbatzen V. Topaketak

Bihar Deba Garaiko Eskola arteko Abesbatzen V. Topaketak burutuko dira Kiroldegian, arratsaldeko 5etan. Bergara, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Arrasateko ikastetxeetako abesbatzak izango dira bertan.

◆ Amaia antzokia urte bukaerarako

Joan den astean, Hirigintza Batzordekoek hainbat obra ikusten izan ziren; horien artean Amaia antzokikoak. Antzokiko egokitze obrak irailerako bukatzea espero zen, baina hiru hilabeteko atzerapena daramate eta arduradunen esanetan Santamasetarako bukatzeko ahaleginak egiten ari dira. Ordutik aurrera berriz kultur ekitaldi ugariaren topaleku bihurtuko da Amaia antzokia.

• Bagara, ez gara, goazen Ikastetxe Publikoetara •

Arrasateko Batxilergo Institutua

Ikastetxe publikoa 1992-93 ikasturtea

IKASKETA ESKAINTZA

Batxilergoko 3 kurso eta UBI.

Ohizko irakasgaiez gain, aukerakoak honakoak dira:

- 1.BBB: Frantsesa-Ingelesa
- 2.BBB: Erljioa-Etika / L.T.P.: Elikadura, diseinua, informatika
- 3.BBB: Aurrekoak eta ondorengoak:

- A. Zientzia arloa
- B. Letra arloa
- C. Zientzia-letra arloa

- U.B.I.: A.Zientzia-teknologia arloa
B. Arlo bio-sanitarioa
C. Giza-arloa
D. Linguistika arloa

EZAUGARRI OROKORRAK

- Inguruko batxilergo-eskola bakarra
- Euskal eta erdal adarrak maila guztietan
- Irakasgai bakoitzeko irakasle lizentziadunak
- Ordutegi trinkoa: goizeko 8.30etatik arratsaldeko 3ak arte.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: zinema, antzerkia, txangoak, argazkilaritza, kirolak: saskibaloia, igeriketa, ski-astea...

EKIPAMENDUA

Informatika gela, fisika, kimika, natur zientzia eta argazkilaritzako laborategiak, gimnasioa, bideo gelak, liburutegia.

AURREINSKRIPZIO EPEA

Maiatzaren 15etik 30era bitartean. Tfnoa: 79 44 47-37

MATRIKULA DOHAINIK



Lorentxo Altube

Euskal musika tresnak berreskuratzen

◆ **Ikastolako erakusketa**
Aurten S. F. Xabier ikastolaren 25. urteurrena ospatzen dela eta, Monterronen 19tik 29ra urte hauek jasotzeko erakusketa bat antolatu dute. Hiru etapa desberdinduko dira: 1967-1974, sorrera eta orduko zailtasunak; 1974-1980, ikastolaren hazkundera; 1980-1992, bere finkapena eta onarpen ofiziala. Epe bakoitzean ikuspegi orokorra eta momentu eta ekintza garrantzitsuenak azpimarratuko dira. Horretarako paneletan grafiko eta argazkiak ere ilustratuko dira. Kuaderno, testuliburu, dokumentu... eta abar izango dira.

◆ **Buruhandi eta kilikien konpartsa**
Arrasateko buruhandi eta kilikien konpartsa Leridan izan zen pasa den aste-bukaeran. Bertan, ohizko dantzak egiteaz gain, buruhandien erakusketa egin zuten.

◆ **Dirulaguntza Heriotza rock taldeari**
Udalak *Heriotza* rock taldeari maxi-single baten grabaketaren erdia ordainduko dio: 226.000 PTA.

◆ **San Juanetako kartel lehiaketa**
Datorren 20an bukatzen da San Juan jaietarako kartela entregatzeko epea. Teknika libre da eta, 50x70 neurria.

Berrogeita hamar urte burdingintza arloan lanean aritu den gizona dugu Lorentxo Altube. Lauzpa-bost urte direla bere semeak bultzatuko, euskal musika tresnak berreskuratu eta biltzen hasi zen.

— Zergatik euskal musika tresnak biltzen?

— Nire semearen bidez sartu nintzen mundu horretan. Bilbon ikasten zegoela txalaparta eta beste tresna batzuk jotzen ikasi zuen. Arrasatera etorri zenean, txalaparta eta horrelako aintzinako tresnak faltan bota genituen. Gazte talde bat bilduz, lanean jarri ginen. Inportanteena zaletasuna eta interesa dira.

— Zenbat tresna bildu dituzu?

— Bost urte hauetan tresna konkretu batuetaz interesatu naiz batez ere. Gaur egun txalaparata jotzeko makila desberdinak ditut: alkatzia, gorostixa, aretxa, pagua... Denak nik bildu eta landutakoak, prozesua bukatzeko izen zientifiko eta dezibelioak ere jartzen dizkiet banan banan. Txalapartz gain, beste batzuk ere bildu ditut:



adarra, alboka, tobera eta beste batzuk apaingarri bezala, panderua bezala. Beti euskal tresnak hartzen ditut kontutan, autoktonoak.

— Euskal jendeak ezagutzen ditu tresna hauek?

— Gero eta interes handiago jartzen du jendeak gauza hauetan, beharbada lehengo gauzen

berpizte prozesu bat gertatzen ari delako, eta musika tresnetan ere gauza bera gertatzen ari da. Hala ere interes hau ez da behar den gauza bakarra. Horretaz gain, erakundeetatik laguntzak jasotzea ere ezinbestekoa da.

— Arrasaten konkretuki zein da arazo larriena?

— Lokalarena batez ere. Udaletxean aspalditik daukagu eskatuta behin behineko erakusketak egiteko gure baldintzetara egokitutako lokala, baina orain arte ez dugu ezer lortu. Gazte askok gero eta interes gehiago jarri du lehengo musika tresnetan, eta orain txalaparta jotzen duten bezala, tobera ezagutu eta ikasteko ere desiatzen daude. Esan dudan bezala, horretarako laguntza behar dugu.

— Ba al dago Arrasaterekin identifikatzen den tresnarik?

— Bai, alboka batez ere. 1443. urtean Garibay-k idatzi zuenez alboka Arrasaten bakarrik ezagutu eta jotzen zen, eta ez beste inon. Besteak Arrasatez gain, toki askotan jotzen ziren, batez ere txalaparta Euskal Herriko bazter guztietan ezagutzen da.

▼
"Behar ditugun laguntzak ez dira heltzen"

ITSASKI
arrandegia
Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa
Arrasate 79 98 94

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 TARRASATE fnoa: 79 14 99

Aste gazte

"Gizarteak gazteekin bat egin behar du, zentzu kritiko, baikor eta sortzaillez arlo guztietan integrazten utziz"

"Entre Jovenes" aldizkaria.

Lanpostu deialdiak

• Deba Garaiko Udal Elkarteak hiltegi larru-pisatzaile lanpostua betetzeko deialdia egin du. Titulazioa: eskola-ziurtagiria. Epea: maiatzak 26.

• Hezkuntza eta Zientzia Ministeritzak 3.250 irakasle kontratatze deialdia egin du. Titulazioa: Magisteritza. Epea: maiatzak 26 (BOE 92-05-26).

• Ministeritza berak Irakaskuntza Ertainetako



5.773 lanpostu betetzeko deialdia egin du. Titulazioa: lizentziatuak, diplomatuak. Epea: maiatzak 26.

Bekak

• XX. Udako Euskal Unibertsitatea

• Iruñean, uztailak 10 - abuztuak 1. Arloak: Arteak eta Komunikazioa, Giza eta Gizarte-Zientziak, Hizkuntzalaritza, Natur Zientziak, Zientzia eta Teknika. Matrikula-prezio bereziak ikasle edo langabetuentzat. Beka ere eska daiteke. Matrikula -

epea: ekainak 1 - 30.

Lehiaketak

• "Gazte Irudiak" Argazki Lehiaketa. 18-30 urte bitartekoei zuzendua. Teknika eta gai libreak, zuribeltzez nahiz koloretan. Parte hartzeko derrigorrezkoa da 5 argazki aurkeztea. Sariak: 750.000 eta 100.000 PTAko 5 akzesit. Epea: maiatzak 30.

• Erreterria hiriko IV Komiki Lehiaketa. 16-26 urte bitartekoei zuzendua. Euskaraz zein gaztelaniaz idatzia. Txuribeltzean. Sariak:

50.000, 20.000 eta 10.000 PTA. Epea: ekainak 5.

• Umorezko Marrazki Lehiaketa, 18 urtetik gorakoei zuzendua. Neurriak: 21x29'7 cm. Modalitateak: gai librea, egoera irigarri bat, karikatura, espazioa eta haurra eta izadia. Sariak: 5000 - 1500 libera bitarteko hainbat sari eta 2 lagunentzako egonaldia Angelun. Epea: ekainak 20.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65

ALMEN ikastola

• Ikasleak bizitzan beharrezkoak izango dituen baloreak eta ahalmenak garatzen laguntzeko Heziketa Proiektua.
• Ondorengo ikasketen arrakasta ziurtatuko duen alde aurreko prestaketa lana.

• Irakaskuntzaren maila guztiak:

- OHO
- Batxilergo Orokorra
- Goi batxilergoa
- Zientifikoa
- Humanistikoa

• III Mailako MODULU PROFESIONALA



"Ekintza soziokulturalak"

"Kirol ekintzak"

• Eredu guztiak: A, B, D

MATRIKULA-EPEA ZABALIK

Ordutegia: egunero 8.30etatik 5.30ak bitartean



ALMEN
IKASTOLA

Oharra: Gure proiektua hobeto ezagutu nahi baduzu hurbil zaitetz edo deitu ALMENERA.

Torrebaso z/g Tfnoa: 79 57 00 / 79 56 89

ETXEBIZITZAK

- **Etxebizitza behar dut alokairuan.** Tfnoa: 79 51 21.
- **Ekainetik aurrera, ekaina barne, logela bat dugu alokagai ikasle etxebizitza baten.** Interesatuak dei egin asteburuetan 94 - 630 85 40. Oso merkea.
- **Bineskak etxea behar dute alokairuan Arrasate edo inguruetan.** Dei egin 79 31 00, 127 luzapenera. Gotzone edo Maite.
- **Etxebizitza salgai.** Sukalde-jangela jantzia, 3 logela bere armairuekin, egongela, komuna eta 2 terraza. Argitsua, eta bista ederrekoa. Prezio onean. Tfnoa: 79 93 42.
- **Etxebizitza alokatu nahi dugu Arrasaten.** Merke eta ona. Tfnoa: 79 21 09 Aitor.
- **Laredon apartamentua alokatzen da uztailen.** Hondartza ondoan dago. Tfnoa: 79 52 80.
- **Urbe auzoan lokala alokatzen da.** Dei egin goizez 79 84 37 tfnora.
- **Etxea salgai.** Terraza, garajea eta ganbara ditu. Tfnoak: 79 23 58 eta 77 00 91.

- **Neska lizentziatu berriak klase partikularrak emango lituzke.** Euskara eta ingelesarekin. Tfnoa: 79 04 07.
- **Marrazketako klase partikularrak behar dira** F1 mailakoa (erdaraz). Tfnoa: 79 24 33. Ander.
- **Marrazketa diedrikoko klase partikularrak hartuko nituzke.** Tfnoa: 79 79 04.
- **Marrazketa linealeko klaseak emateko norbait behar dut.** Tfnoa: 79 72 47.
- **Emakume euskalduna umeak zaindu, etxeko lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko prest.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Pertsona nagusia zaintzeko andra euskalduna behar da** Aretxabaletan. Dei egin 10etatik 12etara 79 55 02 tfnora.
- **Frantsezeko klase partikularrak behar dira.** Dei egin 8,30etatik aurrera 79 09 24 tfnora.

- **Sanglas motorra egoera onean salgai,** Yamaha 400 motorrarekin. Prezioa 100.000 PTA. Tfnoa: 77 04 48.
- **Egurrezko Ferreki markako 24.000 koloriako berogailua salgai.** Tfnoa: 78 10 41.
- **Bigela bikoitzeko kanping-denda sagai egoera onean.** Abanze handiz, pasilo eta guzti. Prezio onean. Dei egin 8etatik 10etara 79 56 06 tfnora.
- **Allure modeloko Alpen Kreuzer karro-denda salgai.** Gutxitan erabilitakoa. Tfnoa: 79 80 85.
- **Trikitixa soina erosi nahi dut.** Merke bada, hobeto. Tfnoa: 79 12 00. Agurne.
- **Salbatlabea, arkoizozgailua eta izozkien bitrina salgai.** Tfnoak: 79 23 58 eta 77 00 91.
- **DENON markako bi moduloko anplifikadorea eta 2x200 W irteera analogiko eta digitalak salgai.** Dena oso prezio onean. Ez galdu aukera!! Tfnoa: 79 47 90. Javi.

SALEROSKETAK

- **Renault 4 zuri eder bat salgai.** Egoera onean dago eta gainera merke. Dei egin 94 - 475 33 86 tfnora. Ikusi, asteburutan ikus dezakezu. Aprobetxatu!
- **R-7 egoera onean salgai.** Tfnoa: 79 31 20.
- **Honda NS 125 F egoera onean salgai.** Tfnoa: 79 97 48.
- **Bost lagunentzako kanping-denda salgai.** Tuboak aluminiozkoak ditu. Tfnoa: 78 04 89. Arriaran.
- **HIFI kateko Sony TA-333 anplifikadorea salgai.** Mikrofono-nahasle inkorporatua dakar. Oso egoera onean dago. Tfnoa: 945- 22 95 71. Oskar.
- **Judoan edota karatean afizionatua bazara eta jantzia Kapemi (3) markakoa behar baduzu, dei bizkor 79 66 38 tfnora, gaueko 8.15tik 8.30etara maiatzaren 30a aurretik.**

DENETARIK

- **Astelehen goizetan zazpiak laurden gutxiago aldera Donostiara kotxez joaten den norbaitekin egongo ginateteke.** Tfnoa: 79 13 83.
- **Urrezko txapa aurkitu nuen kalean martxoaren 18an.** Izena eta eguna jartzen ditu. Galdu duenak dei dezala 79 20 47 tfnora.
- **Idoiari eta Joxe Juani.** Zorionak, zuek bai balixo dozuela. Kuadrilakuek.
- **Ikasle batek bidai-poltsa galdu du.** Topatu baduzu utz ezazu mesedez Musakolako gasolindegian, guztiz beharrezkoa dut bertan zegoen materiala eta.
- **Motxila gris bat galdu da.** Aurkitu duenak dei egin dezala 79 07 18 tfnora.
- **Ezkontzako urrezko eraztuna aurkitu dut, zurea bada dei egin 79 83 43 tfnora.**

LANA

- **Sukaldeko laguntzaile moduan lan egiteko gertu nago asteburuetan.** Tfnoa: 79 24 58.
- **Eskoriatzan klase partikularrak emango nituzke** (matematika eta fisika). Talde txikietan (4koak gehienez). Erdaraz. Tfnoa: 79 34 26.
- **FP2 mailako kimika irakatsiko didan norbait behar dut.** Dei egin 79 50 53 tfnora.
- **Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko euskaraz dakien emakumea behar da.** Dei egin 8.30etatik aurrera 79 25 12 tfnora.

ARRASATEN HILDAKOAK

Maria Jesus Araceli Sainz Gonzalez,
maiatzaren 8an. 41 urte.

Frantziska Ezpeleta Enparanza,
maiatzaren 9an. 92 urte.

Zeilio Irizar Oregi,
maiatzaren 11n, 83 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE


Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Juanita Aldekoa

La Casa del cafe dendakoa

- Kafe alean ala birrindua? Birrindua baina egunean xigortua.
- Kafe hutsa ala esnearekin? Hutsa.
- Zure izena gustatzen zaizu? Bai, gainera horrek ez nau asko ardurazten.
- Arrain bat? Salmonetea.
- Txikitatik duzun gogorapen one-na? Orokorrean oso zoriontsu izan naiz, ez dut gogorapen zehatzik.
- Kafearen usaina ala gustoa? Biak, lehengo usaina eta gero gustoa.
- Gehien gustatu zaizun pelikula? "Lo que el viento se llevo".
- Telefonoz hitz egiteko ohiturarik? Bai, handia. Gainera betidanik izan dut telefonoa etxean.
- Eguzkia hartzea gustatzen zaizu? Lehen asko, baina orain ez.
- Medikuengan baduzu federik? Bai, ez naiz asko joan baina bai, badaukat fedea.
- Zeri diozu beldur handiena? Minari.
- Kolore bat? Urdina.
- Katua ala txakurra? Bat ere ez. Animalia ere ez zait gustatzen.
- Gabonak ala udako oporrak? Azken 30 urtetan ez dut oporrik izan.
- Politikoetan sinisten duzu? Gutxi, baina zerbait bai.
- Kirol bat? Pilota.
- Nola ikusten duzu emakumearen egoera? Txarto, zerbait aldatu da baina oso gutxi.
- Beroa ala hotza aguantatzen duzu hobeto? Beroa, dudarik gabe.
- Txistek kontatzea ala entzutea? Entzutea. Kontatzeko ez dut grazia handirik eta.
- Bidaian joateko zeinekin? Senarrarekin.



Bertsotan

Salto del Negro

1

Berriz albiste bilakatu da Salto del Negro garzela euskal presoak tratatzen dira animaliak bezela bigarren aldiz gose greba bat egiten ari direla beraien nahiak aldarrikatu nahi lituzkete horrela gutxieneko eskubideak behintzat izan ditzatela.

2

Ausartu dira beren osasun ahulak arriskatzera ta ia batzuk iritsi arren heriotzaren parera giza baldintzak lortu artean ez dute joko atzera nahiz gizon batzuk pentsatzen duten greba hau dela kaltera gutzia erraz uler daiteke zentzudun baldin bagera.

AMAI AGIRIANO



MUXIBAR TABERNA

Ezin hoberik inguruan topatu!

Bizkaia Etorb. Tfnoa: 79 09 75 ARRASATE

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerias, 23
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62



Herriko plaza, Ikastolako lehenengo ikasturtea

San Frantzisko Xabier Ikastolako lehen urteko argazkia dugu hau, orain dela 25 urtekoa, beraz. Olentzero eguna zela eta, ikasle eta irakasleak baseritar jantzita irteteko ohitura zuten, eta erretratu horretan halakorik ageri ez bada ere, hurrengo urteetan Olentzero handi bat ere

ateratzen zuten eurekin, kalez-kaleko abestiekin lagun izateko.

Ikasleen izenak esaten hasteak luze joko luke, eta bakoitzak ezagutu beharko du bere burua, edo gurasoek gaur egun gizon-emakume eginda dauden horien ume aurpegia. Orduko irakasleak, berriz, **Xabier Arruti, Ana Mari Arana, Nerea Aranzeta, Arantxa Landa, Maritxu Morea, Adela Ibabe eta Maria Luisa Lizarralde** ziren.

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
Telefax: 793412

LETE
Toldoak

Kataide industrialdea, 14. pabifoa


- Arrasate: 79 23 83
- Bergara: 76 12 24
- Iurreta: (94) 681 76 19

MIREN

APAINDEGIA

Zarugalde, 23-2. Ezk.
ARRASATE Tfnoa: 79 96 90

Gurutzegrama




Horizontalak

1. Kolorezko TB sistema alemaniarra
4. +7+10=Loramendi poeta
7. Ikus 4
9. 2. pertsona sing. errespetuzko eran
10. Ikus 4
12. Europako erdialdeko ibaia (1.380 Km)
13. (Ald.) Nafarroako Udala
16. Programatzeko lengoia
17. Amerizioa
18. Teatrua

Bertikalak

1. Palestinaren askapenerako erakundea
2. Sarze erdian
3. Irrist
4. Mexikoko estatu bat
5. (Ald.) Atziki euskalduna
6. (Ald.) Geun
8. Inoiz
11. Plaentzia erdian
13. EEBBko saskibaloitxapelketa
14. Fleming, "007" sortu zuenaren izena
15. Nahi



JUAN BAUTISTA AGORRIA

BIDEO-EMANALDIA

Indiana Jones Zorigaiztoko Tenpluan

Tokia: Monterron kultur etxea


Eguna: maiatzak 16, larunbata

Ordua: arratsaldeko 4.30etan

Prezioa: 50 pezeta

Sarrerak: Monterronen

Antolatzailea: Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea





Telebegi

Programa berezia: Zaldibar 92

Igandean 20.15etan eta
astelehenean 21.45etan.

Dakizueenez Zaldibarko finala jokatu da asteburu honetan eta jadanik badugu irabazle bat: Argi-lbili. Talde asko pasa dira bertatik, baina azkenean honek demostratu du irabazlea nor den eta merezimendu osoz gainera.

Lehenik eta behin esan beharra dago, ATBrekiko iritzia ezberdina dela kanpoan daudenentzat (kaletarrentzat) edota pittin bat behintzat ezagutzen dugunontzat.

Arrasatear kaletarrak ezin du ATBri buruz hitzegin bere barua, bere dinamika ezagutzen ez bada. Hala ere, kritika dezake ikusten duen produktua.

Puntu hau argitu egin nahi izan dugu, gure eritzia erabat aldatu da eta. Zer da ATB?—galdetzen diozu zeure buruari. Berari buruz ideia bat duzu (eguneroko albistegiak, lau rotizia bildu eta pantailara eraman, elkarrizketa batzuk burutu...) Hori baino askoz ere gehiago dela ziurtatzen dizuegu!

Eguneroko albistegiak izugarriko lana behar du: albisteak bilatu (zer kontatu astelehen batean?), erabiltzen duten tresneriarekin (bi kamararekin) notizia guzti horiek jaso, batetik bestera elkarrizketatuak bilatu, bildutako grabazioak editatu... guzti hau lau katuren artean. Eta katu hauen egun guztiko lana albistegiak irauten duen 20-25 minututan plazaratzen da. Justua al da? justua ala ez, errealitatea da.

Eta albistegiari buruz bakarrik hitzegin dizuegu. Jakina, beste programa guztiek ere denbora eta lan handia daramate. Gure helburua ez da inori "pelota" egitea.

ATBn lanegiten dela esan nahi diegu arrasatearrei, eta dagoen lekuan baldin bada, aurrera egin behar duela ATBk, zailena ez bait da zerbaitera heltzea izaten, bertan mantentzea baizik.

Non eta Arrasaten!

GERARDO ETA MIKEL

Mondragol

Mondra-Durango
Partidu erabakiorra

Igandean
9.15etan

Erreportaiak

Musakolako jaiak
Abesbatzen topaketak
San Pankrazio jaiak

Asteartean
8.20etan

Ostiral Musikala

Perkusioa aztergai

Ostirala
9.20etan

Programazioa

17

IGANDEA

8.15. **Zaldibar 92.** Jokatu diren partidu eta ekintzen laburpena.

9.15. **Mondragol.** J.L. Ezkurrarekin Durango-Mondra. Partidu erabakiorra aukera honetan.

18

ASTELEHENA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak.**

9.20etan, **Mondra Sport.**

Gerardo eta Mikelen eskuetik, astean izan diren kirolak komentatuko dira.

9.45. **Zaldibar 92.** Programa berezia.

9.50. **Asteko zinea:** Mafalda eta bere lagunak.

19

ASTEARTEA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak.** Albistegia.

8.20. **Erreportaiak.** Musakolako jaiak, abesbatzen topaketak eta San Pankrazio jaiak izango dira tratatuko diren hiru gaiak.

20

ASTEAZKENA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak.**

9.15. **Txatxaran.** Rosi Andueza izango dugu gure estudioan.

9.50. **Asteko zinea:** Mafalda eta bere lagunak.

21

OSTEGUNA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak.**

Egunean zehar bildutako gaiak.

9.20. **ATBKetan.** Gure lehiaketa, umorea eta saltsa nagusi.

9.50. **Asteko zinea:** Mafalda eta bere lagunak.

22

OSTIRALA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak.**

Azken albisteak prest zuzretzat.

9.30. **Ostiral musikala.**

9.50. **Asteko zinea:** Mafalda eta bere lagunak.



**OLATZ
ETXABE**
Gizarte
laguntzailea




**JON IÑAKI
IZARZELAIA**
Irakaslea



**OSANE
LIZARRALDE**
Injinaria



**IGOR
ALTUNA**
Diseinatzaile
industrialia



**LIERNI
LASA**
Filologoa



**GERARDO
MENDIZABAL**
Injinaria eta
irakaslea




**AMAIA
GARRO**
Kazetaria eta
Publizista



**GERARDO
URIBESALGO**
Enpresaria



**SONIA
ORTUBAI**
Injinaria




**EUGENIO
BERGARETXE**
Nekazal
injinaria



**EDURNE
BALZATEGI**
Irakaslea



**ANDONI
IÑARRA**
Luthier-a



**RAKEL
KINTANA**
Hezitzaile
fisikoa



**JON
ANDUEZA**
Kazetaria




**MERTXE
SALABERRI**
Geologoa



**JOSU
VILLAR**
Injinaria

SAN FRANTZISKO XABIER IKASTOLA
25. URTEURRENA
 Gure emaitzak agerian daude.



IKASTOLA
Jakina!



**MARTA
ARRIARAN**
Irakaslea